

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 25.000 euro, aisialdiko jardueretan begirale eta zuzendari izateko ikastaroetan parte hartuko duten gazteei laguntzeko bideratuko dira

*Formakuntza hau aisialdiko eskolek emanen dute*

Asteazkena, 2018.eko urriak 31

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartu duen hitzarmena dela eta, Kultura, Kirol eta Gazteriaren kontseilariari baimena eman dio, aisialdiko jardueretan begirale eta zuzendari izateko ikastaroetan parte hartuko duten gazteei emanen zaien diru-laguntzen deialdia onar dezan, banakako ebaluazioa kontuan hartuz. Formakuntza Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak baimendutako aisialdiko eskoletan emanen dira eta 25.000 euro bideratuko dira horretarako.

Banakako ebaluazioa justifikatua dago, ikastaroetan interesaturik dauden pertsonak izanen duten prestakuntza eskaintza aldeztu aurretik ezagutzea ezinezkoa baita. Halaber, banakako ebaluazioak diru-laguntza hauen helburuari hobeto erantzuten dio, ikasturtean zehar abian jartzen ari diren ekimenei irekita dagoelako eta bide batez, baliabideak hobeto aprobetxatzen dira.